

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

INAI/NBIk 339.660 euro jarriko ditu berdintasun-proiektuak garatuko dituzten Nafarroako toki-erakundeentzat

Partidaren zuzkidura %9 igo da 2017an onartutakoarekin alderatuta

Asteartea, 2018.eko martxoak 27

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NBI) 339.660 euro jarriko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-proiektuak nahiz Bateragarritasunaren aldeko Tokiko Itunen Programako proiektuak garatuko dituzten Nafarroako toki-erakundeentzat. Deialdia gaur, asteartea, argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta iazko denboralditik hona (iaz 310.658 euro jarri zituzten) %9 igo da.

Laguntzak bat datoz INAI/NBIk Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak koordinatzeko eta kudeatzeko abian jarritako estrategiarekin. Helburuetariko bat da toki-mailan berdintasun-politikak bultzatzea. Deialdiaren oinarriak astearte honetan argitaratu dira NAO-n eta laguntzak eskatzeko epea bihar, asteazkena, martxoak 28, hasi eta apirilaren 30ean (astelehena) amaituko da.

Deialdia Nafarroako toki-erakunde guztiei egiten zaie, eta laguntzak eskuratu ahal izateko hainbat modalitate eskaintzen dira. Lehenik eta behin, Berdintasun Agentea dutenek proiektuetarako 15.000 eurora bitarteko finantzaketa lortu ahal izango dute edo 7.000 eurora bitartekoa, erakundeak laguntzak jasotzen baditu pertsona hori kontratatzeko. Agenterik ez dutenek, berriz, laguntzak eskatu ahal izango dituzte (4.000 eurora bitartekoak), baina berdintasunaren eremurako edo zinegotzigorako jarritako partida ekonomikoak izan behar dituzte.

Horrez gain, Bateragarritasunaren aldeko Tokiko Ituna sinatuta duten guztiek edo aurten sinatzeko konpromisoa hartzen dutenek 5.000 eurora bitarteko finantzaketa lortzeko proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte.

Laguntzen zenbateko osoak %9ko igoera izan du 2017an aurrekontuan sartutako diruarekin alderatuta, eta 2016an hasitako joerari eusten dio, urte hartan hirukoiztu egin baitzen, 2015ean jarritako kopuruarekin alderatuta.

55 proiektu

2017. urtean, berdintasuneko eta bateragarritasunaren aldeko tokiko itunen 55 proiektu aurkeztu ziren guztira. Horietan, besteak beste, honako hauek sartzen ziren: tokiko gobernantzan eta generoaren zeharkakotasunean aurrera egiteko ekintzak; emakumeen jabeakuntza, haien parte-hartze soziopolitikoak eta balioen aldaketa; zaintza, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna; emakumeen gaineko

indarkeriari aurre egiteko ekintzez gain.

Laguntza horietakoren bat, modalitate ezberdinetako edozeinetan, eskuratu nahi duten proiektuek beren jarduerak 2017ko azaroaren 1etik 2018ko urriaren 31ra bitarte garatu beharko dituzte.